

3

GIDA

DIDAKTIKOA:

EGUZKIA NOLA SORTU ZEN (AUSTRALIA)

AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	3. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	17. or.
Bibliografia	23. or.
Egileak	24. or.

Kapitulu honetako helburuak eta edukiak

	Etapako helburuak	2. zikloko edukiak
	Ezagutzak eraikitzeo zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentziaz, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzeoak, bai ezagutzak eraikitzeoak. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna gisa erabiltzea.
	Hainbat eremutan ahoz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua. Ikastetxean euskaraz komunikatzeko ohitura garatzea, ikasteko, jolasteko eta harreman pertsonaletarako. L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea: Eguzkiari buruzko azalpenak. Ahozko komunikazioan ahotsaren kontrola lortzeko ekimena adieraztea.
	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioaz baliatzea, ezagutzak eraikitzeo.	Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Hizkuntza idatzia komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa balioestea.
	Gelako jarduerak burutzeko, grafikoetan dagoen informazioaz baliatzea, ezagutzak eraikitzeo.	Informazioa identifikatzea eta interpretatzea. Hizkuntza idatziaren eta grafikoaren arteko ezberdintasun nagusiak bereiztea.
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea, koherentziaz, egoeraren ezaugarriei erreparatuz eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Ekoiztiko dituen mezu idatziak hartzaileari eta helburuari egokitzea. Elementu grafiko eta paratestual xumeak erabiltzea. Lantutako testuak identifikatzea: azalpena. Lantutako testuen egitura identifikatzea: hasierako agurra, izenburua, sarrera, testuaren plana, garapena, laburpena eta amaierako agurra. Eremu akademikoari dagozkion testuak sortzea informazioa lortzeko, antolatzeo eta adierazteo, hala nola: zerrendak, galdetegiak, laburpenak, eskemak, oinarriko azalpenak.
	Teknologia erabiltzea idatzizko mezuak sortzeko.	Testuak prozesatzeko programa informatikoak erabiltzen hastea. Liburutegiko zein komunikabideetako informazioa lortzeko, balibide teknologikoak erabiltzen hastea, laguntza emanez: webguneetako helbideak kontsultatzea eta informazioa ulertzea.
	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ahozko hizkuntzaren eta idatziaren arteko ezberdintasun esanguratsuenak bereiztea. Ahozko eta idatzizko komunikazioen testuinguruak bereiztea. Ikasgelan lantzen diren testu-generoak identifikatzea, elementu paratestualei zein testualei erreparatuz: azalpena eta azalpenari laguntzeko irudiak. Testuen transformazioak egitea: azalpena berridaztea, informazioa gehituz. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuen izenak ikastea.
	Hizkuntzak ikasteko eta hobesteko konfiantza adieraztea.	
	Hizkuntzen sistemai buruz hausnartzea, ezagutzen dituenak zuzen erabiltzeko.	Oinarriko arau ortografikoak ezagutzea: paragrafo-bukaerako puntua eta hitz batzuen esanahi-aldaketa maiuskulaz idaztean. Oinarriko arau ortografikoei begirunea izatea.

JARDUERA FUNTZIONALA

Prestatu azalpen bat beste ikaskideentzat. Gaia: Eguzkiarekin zerikusia duena, baina haur talde bakoitzak azpizgai bat aukeratuko du.

EKINTZAK


1. IDEIAK ORDENATZEN:

Azalpena prestatzeko, hona hemen azalpen bat desordenaturik.


Zuen lana horretan datza, ideiak dagozkien irudiekin lotzean.

1.	2.	3.	4.
5.	6.	7.	

1 Ikusi duzuenez, Eguzkia izar bat da. Ez da oso handia besteekin konparatuta, eta haren inguruan bederatzi planeta dabilta birakia. Eguzkitik hurbilen dagoena Merkurio da; ondoren, Artizarra dago. Lur planeta hirugarrena da. Gero, Marte, Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno eta Pluton daude.



a



b

2 Gizakiontzat oso garrantzitsua da Eguzkia. Izan ere, argia emateaz gain, beroa ematen digu. Herri askok Eguzkia jainkotzat hartzen zuten.


2

1) Kontatu dizuegun kondaira bat besterik ez da, baina asko daude. Antzina, Ameriketan, arratsaldero iluntzen zuenean, beldur izaten ziren hurrengo egunean argituko ez ote zuten, ez baitzekiten Lur planeta Eguzkiaren inguruan eta bere ardatzaren inguruan dabilela jiraka, eta gaua horrela sortzen dela. Izan ere, Lurraren alde batean gaua denean, kontrako aldean eguna da.

1)

3


c




4

Gaur, badakigu zergatik gertatzen den, baina asko kostatu zaigu jakitea. Begira ezazue: Lurraren alde honetan eguna denean ere, Eguzkiaren argiak ez du berdin berotzen leku guztietan. Gaur badakigu hori zergatik gertatzen den, baina asko kostatu zaigu jakitea. Begira ezazue: Lurraren alde honetan eguna denean ere, Eguzkiaren argiak ez du berdin berotzen leku guztietan. Horren ondorioz, tenperatura ezberdinak izaten dira Lur planetaren alde batetik bestera. Poloetan eta Ekuatorean ez du tenperatura bera egiten, ezta alde epeletan ere.

d




e



Garai batean, gizakiek uste zuten Eguzkia gure lurraren inguruan zebilela bueltaka, hau da, biraka zebilela Eguzkia zela. Bada, ez da horrela. Eta alderantziz da, hain zuzen ere. Lurrak, gainerako planetek bezala, Eguzkiaren inguruan bide luze bat egiten du, batzuetan Eguzkitik urrutiago eta besteetan, berriz, hurbilago. Horrez gainera, planeta bi zatitan banatzen badugu, hau da, laranja bat bezala erditik moztzen badugu, bi zati horiei hemisferio deitzen zaie. Bi esferardi ditugu, ezta?

5


f




6

Bueno, ba, Hemisferio biek ez dute argi eta bero berdina hartzen beti. Begira ezazue: hemen dagoenean, beheko hemisferioan, gehiago argitzen du, eta, urrutiago dagoenean, berriz, goikoan. Zergatik? Ba, lehenago beste gauzatxo bat azaldu behar dizuet: Lurra etzanda dago, honela, begiratu. Eguzkitik urrun dagoenean, Lurra Eguzkirantz etzanda dago, eta, hurbil dagoenean, beste alderantz. Hori dela eta, urtaroak sortzen dira. Baina, ezetz jakin noiz den uda gure hemisferioan: Eguzkitik hurbilago gaudenean ala urrutiago gaudenean?

g



h




7

Interesgarria, e? Gizakiok betidanik ibili gara Eguzkiari eta ortziari begira. Baina Lurretik ikus daitekeena ez da asko; horregatik, sateliteak bidaltzen ditugu espaziora, hura ezagutzeko asmoz.

Duela gutxi, Roseta zunda bidali dugu espaziora, Eguzkiari buruzko informazioa lortzeko. Zundak kometa baten gainean joan beharko du, eta 10 urte beharko ditu Eguzkira heldu arte.

8



i


2. HITZAK AUKERATZEN:

ZEREN ANTZA DU? ZER EKARTZEN DIZU GOGORA?

Kondairan, eguzkia sua dela esaten da, eta izarrak erraldoien begiak direla. Gaur egun, guk badakigu Eguzkia izar bat dela. Gizakiok gauza asko ikasi ditugu, baina denbora asko behar izan dugu.

Kondairaren arabera, Eguzkiaren argia "suari" zor zaio. Gaur egun, badakigu hori, baina kondaira sortu zenean ez. Nola jakin izan zezaketen Eguzkian *sua zegoela, hau da, erretzen ari zela eta ari dela?* Zertan oinarrituko ziren?

Eguzkia = **sua** edo **sutzarra**




Kondairan, izarrak erraldoien begiak direla esaten da. Beheko irudietan, erraldoi baten eta izar baten irudiak dituzu. Bai ideia bitxia eta polita! Marraztuko zenuke honelako begia duen erraldoia?

Izarra = begia


3. JARDUERA: (Ahoz) HITZEN ERABILERA AZTERTZEN

Kondairan, Eguzkia arrautzaren gorringoarekin konparatzen dute, eta izarrak erraldoien begiak omen ziren.

Hona hemen izar baten irudi erreala: erraldoi baten begia izan zitekeen?



Hona hemen objektu batzuk, berezkoa ez duten funtzioa egiten.





Esan zer erabili duten eta zertarako. Zer iruditzen zaizue? Zuen ustez, beste gauzarik egin zitekeen? Originalak dira?

- 1
- 2
- 3
- 4

Zuek uste duzue hitzekin gauza bera egin daitekeela?





Hitzak erabil daitezke horrela?

Orain, zuen txanda da. Honako irudi hauek zer izan daitezkeen esan beharko duzue. Hau da, objektuak jadanik ez dira diruditenak, beste gauza bat baizik.









Irudi hauek jadanik ez dira arrautza, lorea, Urano planeta, kohetea... baizik eta beste gauza bat dira. Zer? Zeuek esan zer izan daitezkeen, zerekin erlazionatzen dituzuen:

Zeren antza dute? Ortziari behatzean, **izar taldeei** ere izenak jarri zizkieten; adibidez: 1. Sagittarius; 2. Scorpius; 3. Pegasus; 4. Leo...



Hori irudimena! Ea zer izen izan dezakeen izar talde honek, ezetz asmatu!



1. _ k _ r p _ u s

2. _ r _ a _ o a

3. H _ r e _ s _ _ e a

4. H _ r _ z H a _ d _ a

5. K _ r _ a _ a _ r _ a

6. H _ _ t _ T _ i _ _ a

7.


8. P _ g _ s u s.

9.

10.

5. AZALPENA PRESTATZEN

- a) Ekarri ideiak burura
- b) Jarri gaiak ordenan
- c) Oroitu gaiak azaltzeaz



6. INFORMAZIOA BILATZEN

6.1. Hona hemen webgune batzuk, Eguzkiaren gaineko informazioa lortzeko. Dena dela, zuek beste batzuk lortuko dituzue.

www.hiru.com / www.zernola.net / www.zientzia.net

Eguzki-sistemaren argazkia:

http://www.hiru.com/geografia/geografia_00050.html

Behatu argazkiari, eta konturatuko zara Eguzkiaren beroa eta argia planetetara zabaltzen dela.

http://www.elhuyar.org/elhuyar_aldizkaria/pdf/Elhuyar-06-02.pdf

http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=12973

OHARRA: Lur, Ilargi eta Eguzki hitzak maiuskulaz idatzi behar dira astronomiaz ari garenean, orduan izen bereziak dira eta. Baina beti ez dira bereziak!

Hiru lerro hauetatik, bat soilik dago ondo:

- a) eguzkian tenperatura handiak daude / eguzkitan ondo egoten da.
- b) Eguzkian tenperatura handiak daude / eguzkitan ondo egoten da.
- c) eguzkian tenperatura handiak daude / Eguzkitan ondo egoten da.

Zuzendu hiru lerro hauetan dauden akatsak:

- d) Astronautak lurrera datoz / Astronautek Lurra ikusten dute
- e) Lur planeta garbitu behar dugu / Lur jota zaude?
- f) Gu lur planetan bizi gara / Lurrera erori naiz

7. AZALPENA ADIERAZTEN

1. AGURTU.
2. ADIERAZI GAIA ZEIN DEN ETA PLANA.
3. ADIERAZI GAIA.
4. IRITZIA.
5. AMAIERAKO AGURRA.



*Kaixo, lagunok:
Ongi etorri. Espero dut
azalpena zuen intereskoa
izango dela. Niri asko
interesatzen zait gai hau,
jakin-min handia dut.*



EGUZKIA NOLA SORTU ZEN (AUSTRALIA)

LAMIA: Ea non dagoen...

LAMIA: A, bai, hemen... Antzinako garaietan, gizakiek ez zekiten Eguzkia zer zen, eguzkirik ez zelako. Lurrera heltzen zen argi bakarra Ilargiarena eta izarrena zen.

GALTZAGORRI: Hori ezinezkoa da, Eguzkia gizakiak baino lehenago sortu zen eta!

LAMIA: (*Haserre*) Galtzagorri, badakit gezurra dena, baina utzi kondaira kontatzen!

GALTZAGORRI: Gezurra bada, zergatik esaten duzu? E?

LAMIA: Oso gezur polita delako!

GALTZAGORRI: Orduan, gezurrak esan daitezke?

LAMIA: Eeemm... Ez dut hori esan nahi; gainera, gezurra... gezurra ere ez da.

GALTZAGORRI: (*Ironiaz*) Gezur-gezurra ez! Gezur galanta! Ja!

LAMIA: Egon pixka batean, eta ikusiko duzu zein polita den!

GALTZAGORRI: Ea, ba, hala den! Irrikaz nago...

LAMIA: Azken batean, kondairek munduko gauzaren bat nola sortu zen edo nola gertatu zen azaltzen digute.

GALTZAGORRI: Bai, azalpen ederra: gezurrezkoa. Horrela, edonork azalduko luke edozer!

LAMIA: Beno, interesatzen ez bazaizu, ez dizut irakurriko!

GALTZAGORRI: Ja! Juuum!... Tira! Segi, ba, irakurtzen, ea zer azalpen ematen duten. Tira, segi...

LAMIA: Ondo da... Ondo da... (*Irakurriz*) Orduko gizakien ustez, hodeien atzean erraldoi batzuk bizi ziren. Eta izarrek ziren erraldoi haien begiak.

GALTZAGORRI: Eeee? Erraldoiak?... Hori da irudimena! (*Barrea*)

LAMIA: Bai, ezta? (*Barrea*)

LAMIA: (OFF) Garai haietan, gainera, animaliak eta gizakiak lagunak ziren.

EMUA: Nire semetxo maitea...

LAMIA: Eta animaliak ere lagunak ziren.

EMUA: Kaixo, zer moduz?

KURRILOA: Ondo, eta zu?

LAMIA: Egun batean, emua eta kurriloa elkarrekin zebiltzan. Emuak arrautza zeukan bere habian, egundokoa, oso handia benetan. Horregatik, harro-harro zegoen, eta kurriloari erakutsi zion.

EMUA: Etorri, etorri, gauza bat erakutsiko dizut.

KURRILOA: A, bai?... Ea, ba...

EMUA: Begira zein handia den.

KURRILOA: Bai ba!... Hori da, hori, arrautza puska! Ospatu egin beharko dugu.

EMUA: Bai, txita ederra sortuko da eta. Ospatzeko, goazen bazkaltzera.

KURRILOA: Bai.

UNTXIA: Begira... Zer esan nizun?... Itzela da, ezta?... Eta oso polita, gainera.

AZERIA: Horixe!... Egia da, bai... Ez nuen sekula santan halako arrautza eder eta politik ikusi!

UNTXIA: Ez horixe!

EMUA: (*Barrea*)

LAMIA: (OFF) Emua eta kurriloa zelai handi batean barrena zihoazen. Hain harro zegoen emua, lepoa luze-luze eta tente-tente zeraman eta ia ez zion jaramonik egiten lagunari.

KURRILOA: E? Baina zer...? Zer?...

LAMIA: Beste animaliek, harrituta, honela galdetzen zioten kurriloari...

AZERIA: Aizu! Zer du, ba, emuak? Zurekin haserretu da? Zer egin diozu?

KURRILOA: Nik?... Kia, nik ez diot ezer egin, ez dakit zer duen!

LAMIA: (OFF) Ez animaliek, ezta gizakiek ere, artean ez zekiten harrokeria zer zen.

KURRILOA: Aizu... Emu... itxaron pixka bat, itxaron...

LAMIA: (OFF) Hitzik ere ez zuten ideia hori adierazteko.

KURRILOA: Eem... Zera... Ejem...

EMUA: Uuuu?

KURRILOA: Emu, nirekin ez zaude gustura, ala?

EMUA: Ju!

KURRILOA: Baina... Zer?...

KURRILOA: Aizu, ez joan hain azkar, ezin dizut-eta jarraitu!

LAMIA: (OFF) Baina alfer-alferrik: emuak ez zion jaramonik egiten.

AZERIA: Baina... Zer demontre du horrek, ba?

KURRILOA: Esadazu zer gertatzen zaizun. Esadazu zer egin dudan gaizki, mesedez!

EMUA: Ju!

AZERIA: Halakorik ere!

LAMIA: (*Hamaikan*) Hanka luzeagoak zituenez, emua aurreratu egiten zen. Eta kurriloa estu eta larri zihoan haren atzetik.

UNTXIA: Gizajoa... (*Kurriloa*) Atsekabetuta dago...

AZERIA: Baina... Zer uste du, ba, emu txotxolo horrek?

LAMIA: (*Hogeita hiru*) Hala eta guztiz ere, emuak ez zion jaramonik egiten.

LAMIA: Eta halaxe jarraitu zuen, zorioneko arrautza zegoen habiara heldu arte.

EMUA: (*Hogeita hamaika*) Ai, zer ederra den!

KURRILOA: Emu... mesedez...

EMUA: Hain da ederra!

KURRILOA: Zer eder eta eder oste?!

LAMIA: Baina emua bere hartan zegoen, guztiz harrotuta. Eta kurriloa haserretzen hasi zen.

KURRILOA: Aaaaaarrghh!!

LAMIA: Emuari eraso zion. Bazterrera bultzatu zuen...

LAMIA: ... eta, mokokada batez, gora bota zuen arrautza, bai eta hari itsatsita zeuden hainbat adar ere.

EMUA: Ez, ez...

LAMIA: Arrautza eta adarrak hodeietaraino heldu ziren, eta oraindik gorago! Eta, gero, jakina, beherantz jaisten hasi ziren, hodei baten gainera erori arte.

LAMIA: Kolpearen ondorioz, arrautza apurtu egin zen eta gorringoa agerian geratu zen, eta adaxkak erre egin ziren.

E1: E, e, aizu... Ikusi al duzu hori?

E2: Zer?

E1: Begira nolakoa den planeta hori!

E2: (OFF) Zein? A, egia da... (ON) Zenbat kolore dituen! Eta animaliak!

E1: Eta landareak!

E2: Bai.

E2: Zer gertatu da? Zergatik itzali da?

E1: Ez, ez!

EMUA: Ez! Ai, ene! Nire txita!

E1: Nik ez dut dena ikusi, gehiago begiratu nahi nuke!

E2: Bai, baina sua amaitu da. Zer egingo diogu? Pozik egon gaitezke behin ikusi dugulako.

E1: Bueno, bai...

E3: (OFF) E, e... (ON) Zer ikusi duzue?

E1: Lur planeta, eta ez dakizue zeinen polita den. Bai horixe.

E3: Lur planeta? Nik ere ikusi nahi dut.

E1: Bai, guk ere bai, baina...

E2: Ezin da, argia itzali egin da eta.

E3: Berrito piztuko dugu! E? Aurrera, ba!

E2: E? Ados!

E1: Berrito piztu? Bai, bai... A zer ideia!

LAMIA: (OFF) Eta, horrela, egurra biltzen hasi ziren, su handi-handia egiteko eta Lurra ikusi ahal izateko.

E3: Goazen, gehiago ekarriko dugu.

LAMIA: Eta egurra metatzen jarraitu zuten. Eta egur gehiago... eta gehiago... Eta, halako batean...

E3: Nahikoa da... Nahikoa da... Egon...

E3: Nahikoa dugu dagoeneko, piztu egingo dugu.

E1: Bai, horixe.

E2: Bai, egia da.

LAMIA: Esan eta egin! Egur pilari su eman zioten...

LAMIA: ... eta berriro argitu zuen.

LAMIA: (OFF) Lurrean, animalia guztiak zelaietara irten ziren, emuaren semea ikustera eta haren beroaz gozatzera.

UNTXIA: Oooo!

KURRILOA: Emu, Emu, begira zure semea. Berriro agertu da! Ikusten?

EMUA: O, seme! Seme, semetxo!

UNTXIA: Zer pozik dagoen!

AZERIA: Bai. Zorionak eman behar dizkiogu.

EMUA/KURRILOA:

LAMIA: Eta, horrela, une batez, senidetu egin ziren denak, eta zoriontsu izan ziren.

LAMIA: Erraldoiek ere Lur planetari begira eman zuten une argitsu hura.

LAMIA: Eta... A! Hor zaudete! Ba, badakizue, lore guztiak ihartzen diren bezala, sua ere ahitzen hasi zen.

GALTZAGORRI: E? Jakina, zer espero zenuen? (*Barrea*)

LAMIA: Nik ezer ez! Aizu, nik badakit kondaira dela! Emua bezain harroa bazara, ez dizut irakurriko, eta kito! Kontxo!

GALTZAGORRI: Segi, segi, gustukoa dut kondaira hau, baina, (OFF) gero... Ez esan...

LAMIA: (*Haserre, eten egin dio*) Zer?

GALTZAGORRI: Jarraitu, jarraitu, isilduko naiz!

LAMIA: Badakizue zein den munduko gauzen zoria: gaur argi, bihar itzali. Ba, ilundu egin zuen, eta gure erraldoiak, harrituta, ahoa bete hortz geratu ziren.

E1: (OFF) O! Sua ahitu egin da!

E3: (OFF) Ez zuen, ba, betiko iraungo!

E2: Gauzak diren bezalakoak dira, ezin ditugu aldatu.

E1: Baina liluragarria izango litzateke, ezta?

E1/E2/E3: (*Hasperena*) Baaaai (*Hasperenak*)

E3: Izango “litzateke” ez, izango “da”!

E1: Zer diozu?

E3: Hala izango dela. Hori nahi badugu, egin egingo dugu, eta kito. Goazen egur bila.

E1: Bai, goazen, goazen...

E2: Burutik eginda zaudete, ala?

E3: Ez horixe!

E1: Ez horixe! (*Barrea*)

E2: Etengabeko lana izango da hori.

E1: (*Barrea*)

E3: Ba, bai... Baina... Ez zaigu axola.

E1: Merez du. Lurra ikusi ahalko dugu.

E3: Eta beste planeta guztiak! Ulertzen?

E2: Egia da, ederra da Lur planeta. Eta, argituz gero, are politago ikusiko da.

LAMIA: Eta horrela jardun dute geroztik. Horrexegatik dugu guk egunero Eguzkia ikusteko aukera.

Eta, hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Gasteizko plazan. Gustatu zaizu?

GALTZAGORRI: Bai, bai, bai... Bai, ederra izan da benetan. Oso... Oso polita.

LAMIA: Nik, orain, lo-kuluxka bat egingo dut.

GALTZAGORRI: (*Pentsatzen ari da*)

GALTZAGORRI: Beraz, ikusten dugun Eguzkia su handi-handi bat besterik ez da!

LAMIA: E? Zer? O, eeez!

GALTZAGORRI: Beste kondaira bat irakurriko didazu?

LAMIA: Beste bat? Aaaaa! Hurrengo zuri tokatzen zaizu, baina beste momentu batean, orain lo txiki bat egin behar dugu eta.

GALTZAGORRI: Jo! Ba, ni ez naiz logura.

LAMIA: Ba, zoaz erraldoiekin egurketan!

GALTZAGORRI: Joango nintzateke, bai, baina ez dira existitzen!

LAMIA: Mesedez, utzidazu lo egiten.

GALTZAGORRI: Ba! Ez dira existitzen...

E1/E2/E3: Gezurtia halakoa! Egunen batean, nekatu egingo gara, eta argirik gabe geratuko zarete!

(*Eguzkiaren sorreraren narratzailearen jarraipena*).

Ikusi duzue, Eguzkia izar bat da. Ez da oso handia besteekin konparatuta, eta haren inguruan bederatzi planeta dabilta biraka. Eguzkitik hurbilen dagoena Merkurio da; ondoren, Artizarra dago.

Lur planeta hirugarrena da. Gero, Marte, Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno eta Pluton daude.

Gizakiontzat, oso garrantzitsua da Eguzkia. Izan ere, argia emateaz gain, beroa ematen digu. Herri askok Eguzkia jainkotzat hartzen zuten.

Kontatu dizuegun kondaira bat besterik ez da, baina asko daude. Antzina, Ameriketan, arratsaldero iluntzen zuenean, beldur izaten ziren hurrengo egunean argituko ez ote zuten, ez baitzekiten Lur planeta Eguzkiaren inguruan eta bere ardatzaren inguruan dabilela jiraka. Eta gaua horrela sortzen dela. Hala, ba, Lurraren alde batean gaua denean, kontrako aldean eguna da.

Gaur, badakigu zergatik gertatzen den, baina asko kostatu zaigu jakitea.

Begira ezazue: Lurraren alde honetan eguna denean ere, Eguzkiaren argiak ez du berdin berotzen leku guztietan. Horren ondorioz, tenperatura ezberdinak gertatzen dira Lur planetaren alde batetik bestera. Poloetan eta ekuatorean ez du tenperatura bera egiten, ezta alde epeletan ere.

Garai batean, gizakiek uste zuten Eguzkia gure Lurraren inguruan zebilela bueltaka, hau da, biraka zebilena Eguzkia zela. Ba, ez da horrela. Eta alderantziz da, hain zuzen ere. Lurrak, gainerako planetek bezala, Eguzkiaren inguruan bide luze bat egiten du, batzuetan eguzkitik urrutiago eta besteetan, berriz, hurbilago. Horrez gainera, planeta bi zatitan banatzen badugu, hau da, laranja bat bezala erditik mozten badugu, bi zati hauei hemisferio deitzen zaie. Bi esferaerdi ditugu, ezta?

Bueno, ba, hemisferio biek ez dute argi eta bero berdina hartzen beti. Begira ezazue: hemen dagoenean, beheko hemisferioan gehiago argitzen du, eta, urrutiago dagoenean, berriz, goikoan. Zergatik? Ba, lehenago beste gauzatxo bat azaldu behar dizuet: Lurra etzanda dago, honela, begira. Eguzkitik urrun dagoenean, Lurra Eguzkirantz etzanda dago, eta, hurbil dagoenean, beste alderantz. Hori dela eta, urtaroak sortzen dira.

Baina, ezetz jakin noiz den uda gure hemisferioan: Eguzkitik hurbilago gaudenean ala urrutiago gaudenean?

Ea, ikus dezagun polikiago: Lurra Eguzkitik hurbil dagoenean, zer argitzen du gehiago? Beheko hemisferioa ala goikoa? Behekoa, ezta? Aldiz, urrun dagoenean, goiko hemisferioa argitzen du gehiago.

Interesgarria, e? Gizakiok betidanik ibili gara Eguzkiari eta ortziari begira. Baina Lurretik ikus daitekeena ez da asko. Horregatik, satelliteak bidaltzen ditugu espaziora, hura ezagutzeko asmoz.

Duela gutxi, Roseta zunda bidali dugu espaziora, Eguzkiari buruzko informazioa lortzeko. Zundak kometa baten gainean joan beharko du, eta 10 urte beharko ditu Eguzkira heldu ahal izateko.

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

Egileak

GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:

Luisa Calvo

GIDA DIDAKTIKOA
EUSKARAKO ARDURADUNA:

Joan Ignazio Bereziartua

ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:

Mikel Val

SOINU-BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiaz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiaz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K2000 S.A.

Produktore exekutiboa:
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:
Monika Erdozia
J. L. Irigoien
Pedro Arrieta
Ana T. Bengoetxea
Ramón F. De Castro
Kepa Kueto
Jon Goirizelaia
Tere Jaio
Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:
Ricardo Goti
Antonio González
Javier Artetxe

Nahasketak:
Gorka Lara
Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:
Ana Urresti

Koordinatzailea:
Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du:
2008/05/14**

LEGEZKO GORDAILUA: SS-1018/04

Copyright 2007:

L.C. PRODUKTOREA